


## Obra eta Hirigintza Argazki Azpifuntsa



### Identifikazio-eremua

**Erreferentzia-kodea:** ES20030AME\_HIF  
**Izenburua:** Obra eta Hirigintza Argazki Funtsa  
**Data:** 1898 / 1975  
**Deskripzio maila:** 02 - Azpifuntsa  
**Bolumena:** 872 argazki, formatu eta euskarri desberdinetan.  
Gehienak egile-argitaraldiak dira (vintage), zuri eta beltzean. Formatu handiko 8 diapositiba daude (6x6 eta 9x12koak), koloretan, airetik hartutako bistenak eta koloretako argazki-kopia serie bat. 60ko hamarraldiaren hasierako kartak ere badaude, udal arkitektoaren eta mikrofilmazioak egin eta argazkiak airetik hartzen zituzten enpresen artekoak; baita 1959ko Plan Nagusiaren planoak batzen dituzten karpeta bi eta horrekin lotutako dokumentazioa ere.

### Testuinguruaren eremua

#### Ekoizlearen izena

Hirigintza eta Obra Saila, erreportajeak egiteko enkargua, argazkilari profesionali eta fotogrametria eta aireko fotografia enpresei ematen ziena: Pascual Marín, Marqués de Santa María del Villar, Willy Koch, Landaburu, Cecilio; Ortuoste y Castrillo, Indalecio Ojanguren, Plazaola, Buenacasa, Arés, Javier Fernández; TAF-Barcelona, Compañía Española Trabajos Fotogramétricos-Madrid, FOAT-Bilbao eta Paisajes Aéreos-Madrid

#### Historia instituzionala



Argazki gehienak 1959ko Plan Nagusia egiterakoan atera ziren. Eibarko bistak eta panoramikak ateratzeko enkarguak dira, inaugurazioetan eta instituzio-bisitetan egindako erreportaje grafikoak, argazkilari profesionalek egindakoak, herrikoak (Ojanguren, Ortuoste y Castrillo, Plazaola, Ares, Buenacasa, Javier Fernandez) zein kanpokoak (Pascual Marín-San Sebastián, Marques de Santa María del Villar- Madrid, Willy Koch- San Sebastián, Cecilio-Bilbao, Landaburu- Elorrio) eta aireko fotografiak eta fotogrametria-enpresek egindakoak: TAF-Barcelona, Paisajes Aéreos-Madrid, FOAT-Bilbao. Gerra ostea eta Eibarren berreraikuntza seriea "Regiones Devastadas" bulegokoak dira.

### **Sarrerari buruzko datuak**

Dokumentazio hori Obra eta Hirigintza sailean egon zen dokumentazio elkartu gisa harik eta 1995ean udal artxiboaren esku utzi arte.

### **Edukiaren irismena eta egitura**

#### **Garrantzia eta edukia**

Argazki-funts honek hiriko eraikin esanguratsuenak erakusten ditu; Eibarrek izan duen bilakabidea XIX. mende amaieratik XX. mendearen laurogeiko hamarraldira arte. Eibarko ondare arkitektonikoari buruzko argazki-serieak ditu, 1936a baino lehenagokoak; Gipuzkoako irudiak gerra zibilean; Eibarko suteak eta hondamendia; herrialde suntsituen plana edo "Regiones Devastadas"ena -Ego erreka estaltzeko lanak-; Merkatu plazaren eraikuntza; San Andres parrokiaren ingurua eta Klaustroa egin zenekoa; 1959ko Plan Nagusirako airetik ateratako argazkiak eta argazki fotogrametrikoak, eta 60ko hamarraldiaren industria- eta hiri-hazkundera. Horiez gain beste argazki batzuk ere badaude, irudi instituzionalak, inaugurazio-ekitaldienak eta Eibarko hainbat lekutara agintariek egindako bisitenak (Armeria Eskola, Alfa, Ignacio Zuloaga institutua, Unibertsitate Laborala). Argazki-funts honetan azpimarratzekoak dira 1937tik 1959rako tarte horretan egindako argazkiak, bonbardatu eta eskonbroak kendu ondoren Eibarko hirigune historikoan izandako aldaketak ondo baino hobeto islatzen baitituzte.

#### **Balioespenak, hautaketak eta aldaratzeak/deuseztapenak**

Funtsaren inbentarioa eta deskribapena egiterakoan ez da irudi bat bera ere bota. Dauden argazki-kopiak jatorrizko argazkien karpetan bertan daude sartuta duplikatuen artxibo bat egin arte edo expurgoa edo garbiketa egin arte.

#### **Eskuratzekoak**

Funts irekia da, eta obra eta hirigintza saileko udal espedienteekin zerikusia edo lotura izan dezaketen argazki-serie berriak edo udalaren jardunetik sortutakoak sartzen joan daitezke.

#### **Antolamendua.**

Sailkapen bat egin sei multzotan banatuta: 1. Marqués de Santa María del Villar, 2. Aireko argazkiak, 3. Obrak eta hirigintza, 4. Ekitaldiak, bisitak eta pertsonalitateak, 5. Ondare artistikoaren erreproduktzioak, 6. Zerbitzuak.

### **Erabilera eta sarbidea: Baldintzak**

#### **Eskuratzeko baldintzak**

Dokumentazioak sarrera librea du. Negatiboen eta diapositiben kontsulta mugatuta dago.





## **Deskribapenerako baliabideak**

Lehenengo Inbentarioa udal artxiboan egin zen 1995ean. Irudiak datu-base batean daude mekanizatuta, File Maker softwarrarekin neurrira eginda, Eibarko udal artxiboan beste funts eta argazki-bilduma batzuk kudeatzeko erabiltzen direnen antzekoa. Argazkiak deskribatzeko lana osatzen ari da, identifikazioaren, edukiaren, datu teknikoaren alorrean eta arlo kurrikularrean eta kontsultetakoan, ISAD (G) dokumentu-unitateetara egokituta. Sailkapen taula sei multzotan dago banatuta, serie hauetan hain zuzen ere: 1. Marqués de Santa María del Villar, 2. Aireko argazkiak, 3. Obrak eta hirigintza, 4. Ekitaldiak, bisitak eta pertsonalitateak, 5. Ondare artistikoaren erreproduzioak, 6. Zerbitzuak.

## **Lotutako dokumentazioaren eremua**

### **Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.**

Eibarko Udal Artxiboa.

### **Kopiei buruzko informazioa**

Gerra aurreko irudi batzuen kopia eta Eibar hondatuaren kopia batzuk daude Castrillo Ortuosterean eta Ojangurenenean. Bestalde, Udal artxiboan bertan kopia digital bat ere badago.

### **Lotutako deskribapen-unitateak**

Dokumentu-serieak Obra eta Hirigintza sailera elkartuta. Eibarko hiriak izan dituen aldaketen jarraipena udal artxiboaren sailkapen laukiko C Serie barruan sartuta dauden udal obretako proiektuetatik eta partikularretatik egin daiteke, 1etik 41era; baita Hirigintza sailaren bulegoko artxiboan dauden espedienteetatik ere. Azpimarratzekoak dira Eibarko Zabalgunerako Proiektua, Ramón Cortazar arkitektoak 1901ean egindakoa eta Eibarren hondatuta geratu ziren eraikinen Planoa, Laureano Uzcangak 1939an egindakoa.

### **Argitalpeni buruzko oharra**

Katálogo eta Bideoa "Dinbili Danba, Su eta Keian Tartian. La Historia Urbana de Eibar". Sala de Exposiciones de Portalea. Eibar, 1996.  
Eibarko Argazkiak. Fotografías de Eibar. Ed. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.  
Eibarko Agirre medikuak. Hiru mende mendikuntzan (1860-2006). Eibarko Udala, 2006

## **Deskribapen Kontrola**

### **Artxibozainaren oharra**

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

### **Arauk**

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

### **Deskribapen-data**

2008-04-07

